

korrikako EUSKAPARATE *Lehiaketa 2022*

KORRIKAren asmo eta helburuekin bat eginez, Errenteriako, Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiaiko Udalek, Oarsoaldeko Euskara Batzordearen bitartez, merkataritza, ostalaritza eta gainerako saltokietako erakusleihoak nahiz saltokiak apaintzeko lehiaketa antolatu dute.

Ekintza hori, arestian esan bezala, KORRIKari loturik dago. Lotuta dago, era berean, urtero, urteko 365 egunetan, Oarsoaldeko lau udalek merkataritza eta ostalaritza alorrean euskararen erabilera sustatzeko gauzatzen duten "PREZIO BEREAN, EUSKARAZ!" egitasmoarekin ere.

Lehiaketan parte hartzera animatu nahi zaituztegu.

Oinarriak

Hala nahi duten Oarsoaldeko (Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia) merkataritza, ostalaritza eta gainerako saltoki guztiek hartu ahal izango dute parte erakusleho/eskapatate lehiaketan.

Lehiaketan parte hartu nahi duten saltokiek hiru gauza egin beharko dituzte:

- KORRIKA edo/eta EUSKARA aitzakia edo gai hartuta apaindu beharko dute saltokiaren erakusleho bat gutxienik. Erakuslehorik ez izan arren, establezimendua bera, edo haren alde nahiz zatiren bat apainduz parte hartu nahi dutenek ere egin ahal izango dute.
- Ezinbestekoa izango da apainketan KORRIKari erreferentzia egitea. Aldiz, baloragarria izango da euskarazko testuren bat erantsi izana. Erakuslehoia edo saltokia apaintzeko lagungarri izango den edota horretarako aitzakia eman dezakeen Korrikako petoa banatuko du antolakuntzak.
- Lehiaketan parte hartu nahi duten establezimenduek www.oarsoarrak.eus web gunean aurkituko duten formularioa bete beharko dute. Izena emateko epea martxoaren 4tik 16ra bitartekoa izango da.
- Lehiaketan parte hartzen ari diren establezimenduetako saltzaileek egun horietan bederen lehen hitza edota agurrak euskaraz egingo dizkiete bezero eta erabiltzaileei.

KORRIKA edo euskara eta merkataritza/ostalaritza hobekien uztartzen dituen erakusleho edo saltoki apainduak izango dira sarituak. Eskualdeko onenaren sari bat emango da eta herri bakoitzeko onena ere sarituko da. Muntaiaren, apainduraren originaltasuna eta adierazkortasuna baloratuko dira bereziki.

Lehiaketaren epeak

Erakuslehoak edota saltokiak apainduta eduki beharko dira 2022ko martxoaren 21etik apirilaren 11ra bitartean.

Epaimahaia eta lehiaketaren prozedura

- Irabazleak erabakiko dituen epaimahaia Oarsoaldeko Euskara Batzordearen Merkataritza Lan-mahaiak izendatuko du.
- Epaimahaiko kideek martxoaren 21etik 30era bitartean ikuskatuko dituzte lehiaketan parte hartzeko nahia agertu duten erakusleho eta establezimendu guztiak, eta ikusi ahala, euren balorazioak biltzen joango dira.
- Argazkia egingo diote epaimahaikideek establezimendu bakoitzari, froga gisa.
- Behin epea amaitutakoan, epaimahaiak balorazioak aztertuko ditu, eta apirilaren 1erako emango du epaia.
- Saridunei deitu egingo diete antolatzaileek, eta prentsaren bidez ere emango dira ezagutzera establezimendu sarituak. Sariak KORRIKAREN egitarauko ekitaldiren batean emango dira herriz herri.
- Lehiaketa bukatutakoan, erakuslehoen argazki guztiak www.oarsoarrak.eus webgunearen merkataritza-ostalaritza atalean eta oarsoaldekoaek.blogspot.com orrian jarriko dira ikusgai.

Sariak

Lehiaketaren irabazleak 2022ko apirilaren 15etik ekainaren 15era bitartean bere bezeroen artean deskontuak egiteko 400 euroko txartela irabaziko du (5 €ko 80 deskontu), eta bere bezeroen artean banatzeko 200 euroko baliora arteko deskontu bonoak (5 €ko 40 deskontu) herri bakoitzeko onenak.

(1) Lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar.

(2) Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatuarekin bat, parte-hartzaileek bere baimena ematen dute bere datu pertsonalak erabili ahal izateko. Datu horiek lehiaketaren parte-hartzaileen fitxeroan sartuko dira, eta soilik horrekin lotutako helburuetarako erabiliko dira. Fitxero horren jabea Oarsoaldea Garapen Agentzia da. dbol-lopd@oarsoaldea.eus posta elektronikora jo beharko da datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko eskubideak gauzatzeko.

korrikako EUSKAPARATE *Lehiaketa 2022*

NOIZ

martxoaren 21etik apirilaren 11ra

IZENA EMATEKO EPEA: martxoaren 4tik 16ra bitarte

SARIAK

400€ko txartela irabazlearentzat

5€ko 80 deskontu bono* bezeroen artean banatzeko

200€ko txartela

herri bakoitzeko onenarentzat

5€ko 40 deskontu bono* bezeroen artean banatzeko

info+

www.oarsoarrak.eus

* 2022ko apirilaren 15etik ekainaren 15era bitarte erabili ahal izango dira saltoki irabazleetan.

OARSOARRAK

M E R K A T A R I T Z A



Erraztutako datu pertsonalak OARSOALDEA, S.A-k tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun bezala, euskara sustatzeko eta normalizatze programak eta ekimenak garatzeko helburuarekin. Zure datu pertsonalei dagokionez, nahi izanez gero eskubidea duzu dbol-lopd@oarsoaldea.eus helbidera zuzenduz zure datu pertsonalak tratatzen ari garen ala ez konfirmatzeko, baita zehatzak ez diren datuak zuzentzeko, edo datu horiek ezabatzeko, beste eskubideen artean. Datu babesari buruzko informazio gehigarria web orrialdeko Pribatutasun politikan [<http://www.oarsoaldea.eus/eu/privatutasun-politika>] azaltzen da.